

GETXOKO UDALTZAINGOAREN ARAUDIA

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA	4
ATARIKO TITULUA	5
1. artikulua.- Egitekoa.....	5
2. artikulua.- Ikuspegia.	5
3. artikulua.- Balioak.....	5
I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	6
I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA	6
4. artikulua.- Xedea.	6
5. artikulua.- Aplikazio-eremua.....	6
II. KAPITULUA. UDALTZAINGOAREN JARDUERA KONTROLATZEKO MEKANISMOAK.....	6
6. artikulua.- Udaltzaingoaren jarduera kontrolatzeko mekanismoak.....	6
III. KAPITULUA. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA, LURRALDE-EREMUA ETA FUNTZIOAK	6
7. artikulua.- Izaera.	6
8. artikulua.- Araubide juridikoa.	7
9. artikulua.- Lurralde-eremua.....	7
10. artikulua.- Funtzioak.	7
IV. KAPITULUA. JARDUTEKO OINARRIZKO PRINTZIBIOAK.....	8
11. artikulua.- Ordenamendu juridikoa egokitzea.	8
12. artikulua.- Beste Indar eta Segurtasun Kidegoekin koordinatuta egotea.	8
13. artikulua.- Harremanak herritarrekin.	9
14. artikulua.- Trataera atxilotutako pertsonen.	9
15. artikulua.- Dedikazio profesionala.	10
16. artikulua.- Sekretu profesionala.	10
17. artikulua.- Erantzukizuna.....	10
II. TITULUA.- LANGILEEN PLANTILLA, EGITURA, ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIOAK	10
I. KAPITULUA. LANGILEEN PLANTILLA ETA EGITURA	10
18. artikulua- Plantila eta lanpostuen zerrenda.	10
19. artikulua.- Kidegoaren buruzagitza.	11
20. artikulua.- Egitura. Eskalak eta kategoriak.	11
II. KAPITULUA. ANTOLAMENDUA ETA ERAKETA	11
21. artikulua.- Antolamendua.....	11

22. artikulua.- Ordezkapenak karguan.....	12
23. artikulua.- Eraketa	12
III. KAPITULUA. FUNTZIOAK.	14
24. artikulua. Komisarioaren funtzioak.	14
25. artikulua.- Komisariordearen funtzioak.	14
26. artikulua.- Ofizialen funtzioak.	15
27. artikulua.- Ofizialordearen funtzioak.....	16
28. artikulua.- Lehen agentearen funtzioak.....	16
29. artikulua.- Agenteen funtzioak.....	17
III. TITULUA. KIDEGOAREN FUNTZIONAMENDUA	17
I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK	17
30. artikulua.- Erregelamendu bitartekoa.	17
31. artikulua.- Egiaztagiri profesionala.....	18
32. artikulua.- Jokaera arauak, irudi profesionala eta pertsonala.....	18
33. artikulua. Agurra.	18
34. artikulua.- Gorabeheren berri ematea.	19
35. artikulua.- Txandak.	19
36. artikulua.- Lanaldia.	19
II. KAPITULUA. MODULATUTAKO ZERBITZU AKTIBOA ETA BIGARREN JARDUERA	19
37. artikulua.- Modulaturako zerbitzu aktiboa.....	19
38. Artikulua.- Bigarren jarduera.	20
39. artikulua.- Bigarren jarduerako egoerara pasatzeko prozedura.....	21
40. artikulua. Azterketa medikoa.	22
41. artikulua.- Epaimahaiaren erabakia.	22
42. artikulua. Entzunaldiaren izapidea.....	23
43. artikulua. Ebazpena.	23
44. artikulua. - Ofizios hasitako prozedura.....	23
45. artikulua.- Alderdiak hala eskatuta hasitako prozedura.....	24
46.artikulua.- Trebetasun psikikoak eta/edo fisikoak berrikustea.	24
47. artikulua.- Behin-behineko neurriak	24
48. artikulua.- Bigarren jarduerako funtzioak.	24
49. artikulua.- Bigarren jarduerako funtzionarioen ordainsariak.....	25
50. artikulua.- Bigarren jarduera eta adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktibo.	25
51. artikulua.- Zerbitzu aktiboan edo bigarren jardueran berriz ere laneratzea.	25
IV. TITULUA ESTATUTU PERTSONALA	26
I. KAPITULUA. ESKUBIDEAK	26

52. artikulua.- Eskubideak.....	26
53. artikulua.- Zorionak, aintzatespenak eta aipamenak.....	26
54. artikulua.- Sindikatu ekintzaren araubide esparrua.....	26
55. artikulua. Sindikatuen eskubideak.	27
56. artikulua.- Letratuen laguntza eta defenza.	27
II. KAPITULUA. BETEBEHARRAK	27
57. artikulua.- Betebeharrak.	27
58. artikulua. Bateriaezintasuna.	28
59. artikulua.- Grebak egiteko debekua.....	28
V. TITULUA. UNIFORMETASUNA, EKIPAMENDUA, IBILGAILUAK ETA BITARTEKO	
TEKNIKOAK	28
I. KAPITULUA. UNIFORMETASUNA	28
60. artikulua.- Jantziak.....	28
61. artikulua. Araubidezko bateratasuna	29
62. artikulua.- Uniformea erabiltzea.....	29
II. KAPITULUA. EKIPAMENDUA ETA ARMAK.	29
63. artikulua.- Defentsarako bitartekoak.	29
64. artikulua.- Polizien oinarrizko ekipamendua.	29
65. artikulua.- Bestelako materialak erabiltzea.....	30
66. artikulua.- Gailu mugikorren erabilera.	30
67. artikulua.- Indarra eta su-armak erabiltzeko oinarrizko printzipio mugatzaileak.	30
68. artikulua.- Behin betiko arma kentzea.....	31
69. artikulua.- Arma aldi baterako kentzea.	31
70. artikulua.- Arma eramateko betebeharra eta salbuespenak.	31
71. artikulua.- Matxurak eta armak konpontzea.	32
72. artikulua.- Armen jabetza-gida.....	32
73. artikulua.- Arma edo jabetza-gida galtzea, lapurtua izatea edo suntsitzea.	32
74. artikulua.- Su-arma gordetzea.....	32
III. KAPITULUA. IBILGAILUAK ETA BITARTEKO TEKNIKOAK	32
75. artikulua.- Ibilgailuak.....	32
76. artikulua. Bitarteko teknikoak	33
77. artikulua.- Ikuskaritza eta kontrol bitartekoak.....	33
VI. TITULUA. KIDEGOAN SARTZEA, PRESTAKUNTZA, PRAKTIKA ALDIA, ETENGABEKO	
PRESTAKUNTZA, SUSTAPENA ETA ERRETIROA	33
I KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	33
78. Artikulua.- Kidegoan sartzeko betekizunak eta aukeraketa prozedurak	33

II. KAPITULUA. KIDEGOAN SARTZEA, PRESTAKUNTZA ETA PRAKTIKA ALDIA.....	34
79. artikulua.- Udaltzaingoko Kidegoan sartzea	34
80. artikulua.- Prestakuntza eta praktika aldia.....	34
III. KAPITULUA. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA. EUSKALDUNTZEA.	34
81. artikulua.- Etengabeko prestakuntza	34
82. artikulua.- Euskalduntzea	34
IV. KAPITULUA. BARNE SUSTAPENA ETA ERRETIROA	35
83. artikulua.- Barne sustapena	35
84. artikulua.- Erretiroa	35
VII. TITULUA DIZIPLINAKO ARAUBIDEA.....	35
I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.....	35
85. artikulua.- Aplikatu beharreko arauak eta printzipioak.....	35
II. KAPITULUA. ZEHAPEN ESKUMENA ETA ZEHAPEN PROZEDURA.....	36
86. artikulua.- Diziplinazko zehapen-eskumena	36
87. artikulua.- Diziplinazko prozedura	36
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA	36
BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.....	36
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	36
AZKEN XEDAPENA	36

ZIOEN AZALPENA

Getxoko Udaltzaingoa Osoko Bilkurak 2004ko maiatzaren 28an onetsitako araudia du; araudi hori, era berean, partzialki aldatu zen 2018ko apirilaren 25eko osoko bilkuran.

Araudi hori Tokiko araubidearen alorrean indarrean zeuden lege xedapenen testu bateginaren 55. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez sortu zen, baita Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean xedatutakoari jarraiki ere.

Araudi hori onetsi ondoren, hainbat arau berri sortu dira, eta horrenbestez, testua berrikusi behar da. Hala, bereziki kontuan hartu behar dira oraintsu onetsi den eta Euskal Herriko Poliziaren Legea bosgarren aldiz aldatzen duen ekainaren 27ko 7/2019 Legea eta 58/2015 Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru arauak ezartzen dituen eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legea garatuz eman zena. Beraz, beharrezkoa da Udaltzaingoa araudia horietara guztietara egokitzea.

Bestalde, hamabost urte baino gehiago igaro dira azken araudia onetsi zenetik, eta denbora horretan zehar Udalaren antolamendu-egitura aldatu egin da. Beraz, beharrezkoa da Udaltzaingoa antolamendua eta funtzionamendu arauak antolamendu eredu berri horretara egokitzea.

Bukatzeko, eta kontuan hartuz gizartean gertatutako aldaketak, polizia eredu berria "hurbiltasunean oinarritutako poliziarena" izan behar da, eta beraz, derrigorrez polizia herritarrekin harremanetan egon behar da. Hori guztia elkarbizitzako arazoetan esku hartzeko eta arazo horiek konpontzeko, eta orokorrean, pertsona guztien eskubideak eta askatasunak defendatzeko eta babesteko modu aktiboan jardunez, neutraltasunez, eta inolako diskriminaziorik gabe.

ATARIKO TITULUA

EGITEKOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

1. artikulua.- Egitekoa.

Udaltzaingoa segurtasun publikoko kidegoa da, udalerraren mendekoa, eta bere egitekoak dira eskubideak eta askatasunak modu librean egikaritzen direla babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea, elkarbizitza baketsua zainduz eta pertsonak eta ondasunak babestuz, Legearekin bat eginez.

2. artikulua.- Ikuspegia.

Udaltzaingoa, bere zereginak egikaritzean, herritarrentzako eskuragarri egoten da eguneko hogeita lau orduetan eta urteko egun guztietan, eta honako helburuak lortu nahi dira:

- a) **Hurbileko polizia izatea**, eta horretarako, ikusgarritasuna, irisgarritasuna eta herritarren beharrekiko eskuragarritasuna aplikatzen dira. Bere ingurunearekin eta komunitatearekin integratutako polizia bat, gatazkei aurrea hartzeko eta horiek prebenitzeko gai dena, hurbiltasuna lan-filosofiatzat hartuz.
- b) Herritarrek polizia baliabide propiotzat **hartu behar dute**, poliziak herritarrei lagundu eta herritarrak babesten dituelarik, eta segurtasun pertsonala eta ondasunena zaintzen dituelarik, legezko xedapenekin bat eginez.
- c) Herritarrek polizia **baloratu behar dute** bere prebentzio aktiboagatik, hurbiltasunagatik, arintasunagatik eta eraginkortasunagatik.
- d) Polizia **aintzatetsia** bere zerbitzuengatik eta zerbitzuen kalitateagatik.

3. artikulua.- Balioak.

Udaltzaingoa honako balioak hartzen ditu bere gain jarduera profesionalean:

- a) **Polizia zintzoa eta zuzena izatea**, ustelkeriaren aurka dagoena eta herritarrak inpartzialtasunez eta neutraltasunez tratatzen dituena.
- b) **Konfiantzazko eta errespetuzko polizia izatea**, gardentasunez lan egiten duena, komunikazioa jorratuz, eta pertsona guztiak errespetuz tratatzen dituena.

- c) **Konpromisoa eta barne kohesioa dituen polizia izatea**, langile guztiek horiek beteko dituztelarik jarduera profesionala garatzen duten bitartean.
- d) **Taldean eta diziplinarekin lan egiten duen polizia izatea**, helburuak barneratuz, zereginak aztertuz eta egikaritzuz, eta arazoak ebaztean inplikaturik dagoen polizia izatea.
- e) **Polizia gaitua** izatea, kideen etengabeko prestakuntza eta hobekuntza lantzen dituen.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

4. artikulua.- Xedea.

Araudi honen xedea da ezartzea Getxoko Udaleko Udaltzaingoa arautuko duten antolamendu arauak eta jarduketa eta funtzionamendu irizpideak, indarrean dagoen legeriarekin bat eginez.

5. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Araudi hau Getxoko Udaleko Udaltzaingoa eta berau osatzen duen langileen plantillan aplikatuko da.

II. KAPITULUA. UDALTZAINGOAREN JARDUERA KONTROLATZEKO MEKANISMOAK

6. artikulua.- Udaltzaingoa jarduera kontrolatzeko mekanismoak.

Euskal Herriko Polizia Legeak polizia-jarduera kontrolatzeko ezartzen dituen mekanismoez gain, herritarrek Getxoko Udaltzaingoa zerbitzuen funtzionamenduari buruzko kezak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte, AQS-Getxoko Udalak herritarrei arreta emateko dituen bulegoen bidez (aurrez aurrekoak edo administrazio elektronikokoak).

III. KAPITULUA. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA, LURRALDE-EREMUA ETA FUNTZIOAK

7. artikulua.- Izaera.

1. Getxoko Udaltzaingoa erakunde armatua da, izaera zibilekoa, eta langileek kidego bakarra osatzen dute, goi mailako buruzagitzaren menpeko hierarkizatutako egitura eta antolamendua dituelarik. Era berean, alkatearen zuzeneko mendeko kidegoa da, albo batera utzi gabe toki araubidearen legerian aurreikusitako eskumenak eskuordetzea.
2. Udaltzaingoko kideak Getxoko Udaleko karrerako funtzionarioak dira eta beraien zeregin guztiak egikaritzean eta legezko ondorio guztietarako agintaritzaren agenteak dira.

8. artikulua.- Araubide juridikoa.

Udaltzaingoak honakoak bete beharko ditu eragiten dioten gaietan; Segurtasun Indarren eta Kidegoen Lege Organikoa; Euskal Herriko Poliziaren Legea eta berau garatzen duten xedapenak; Euskadiko Administrazio Autonomoaren eta Getxoko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmen esparrua, Ertzaintza eta Udaltzaingoa lankidetzan aritzeko eta bere jarduketaren protokoloa; Araudi hau eta aplikatu beharreko gainerako ordenamendu juridikoa.

9. artikulua.- Lurralde-eremua.

1. Udaltzaingoak Getxoko Udalaren lurralde-eremuan jardungo du.
2. Era berean, Udaltzaingoak udal mugapenetik kanpo jardun ahal izango du honako egoeretan:
 - a) Larrialdi- edo beharizan-egoeretan, eskumenak dituen agintaritzak hala eskatuta eta Alkatetzaren baimenarekin.
 - b) Agintaritza judizialaren aginduz.
 - c) Tokiko erakundearen agintaritza babeserako zereginak egikaritzean, segurtasun alorrean eskumenak dituen sailaren baimenarekin; baimen hori modu generikoan eta orokorrean eman ahal izango da.
3. Getxoko Udaltzaingoak udalerrira mugakideetan edo hurbil daudenetan jardun ahal izango du, eta horretarako, udalaren artean lankidetzaren hitzarmenak sinatu beharko dira, aurretiaz segurtasun publikoan eskumenak dituen sailak baimena eman ondoren.

10. artikulua.- Funtzioak.

1. Honako funtzio hauek beteko ditu Udaltzaingoak:
 - a) Udalerrira agintaritzak babestea eta eraikinak eta instalakuntzak zaintzea.
 - b) Hiriguneko trafikoa antolatzea, seinaleztatzea eta zuzentzea eta Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Legeak eta berau garatzen duen araubideak ezarritako gainerako funtzioak betetzea.
 - c) Zirkulazio istripuen edo trafiko segurtasunaren aurkako arau-hauste penalen atestatuak izapidetzea, Ertzaintzarekin ezarritako protokoloarekin bat eginez.
 - d) Administrazio polizia gisa jardutea eta aritzea, bere eskumeneko eremuan, ordenantzetan, bandoetan eta gainerako udal xedapen eta ekimenetan; eta ingurumen eta inguru babesaren alorrean indarrean dagoen araubidea betetzen dela zaintzea bere tokiko eskumenekin eta alor horiekin bat eginez.
 - e) Beste polizia kidegoekin eta, ezarritako protokoloaren arabera, Ertzaintzarekin parte hartzea polizia judizialaren funtzioak egikaritzean, eta antolamendu juridikoari jarraiki, agintaritza judizialekin lankidetzan aritzea eta horiei laguntzea.
 - f) Istripuak, hondamendiak edo zoritxar publikoak gertatzen direnean laguntzea, eta, legeetan aurreikusitakoarekin bat eginez, parte hartzea Babes Zibileko planak egikaritzean.
 - g) Prebentziozko diligenziak eta delituak egitea saihesten duten jarduketaren guztiak gauzatzea.
 - h) Espazio publikoak zaintzea eta Ertzaintzarekin lankidetzan aritzea manifestazioak babesten eta ordena mantentzen jende asko elkarrekin biltzen denean, horretarako aginduak jasoz gero.

- i) Arazo pribatuak konpontzeko lankidetzan aritzea, horretarako aginduak jasoz gero.
 - j) Ordenamendu juridikoarekin eta Ertzaintza eta Udaltzaingoa lankidetzan aritzeko eta jarduketa protokolorako Euskadiko Administrazio Autonomoaren eta Getxoko Udalaren arteko lankidetzan esparru hitzarmenarekin bat eginez, agintzen edo esleitzen zaizkion gainerako poliziaren funtzioak egikaritzea.
2. Udaltzaingoa aurreko ataleko c) eta g) paragrafoetan aurreikusitakoekin bat eginez gauzatu dituen jarduketak Ertzaintzari eta Agintaritzari Judizialari jakinaraziko zaizkio.

IV. KAPITULUA. JARDUTEKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK

11. artikulua.- Ordenamendu juridikoa egokitzea.

Udaltzaingoko langileek ordenamendu juridikoa betez jardungo dute, eta bereziki honakoak gauzatu beharko dituzte:

- a) Funtzioak egikaritzean guztiz beteko dute Konstituzioa, Autonomia Estatutua, Euskal Herriko Poliziaren Legea eta gainerako ordenamendu juridikoa, eta Legeak ezarritako zereginak bete beharko dituzte, komunitateari zerbitzuak emanez eta pertsona guztiak babestuz eskubideak eta askatasunak modu librean egikaritzea oztapatzen duten legez kanpoko ekimen guztien aurrean.
- b) Funtzioak betez, neutraltasun politiko eta inpartzialtasun osoz jardutea, gehiegikeriazko jokaerak edo jokaera arbitrarioak saihestuz eta une oro berdintasun printzipioak errespetatuz, baita Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean zehaztutako diskriminazio ezaren printzipioak babestuz ere.
- c) Poliziaren etikari buruzko Europako Kodean jasotako printzipioekin eta jokaera arauarekin bat eginez jardutea, horiek betetzea eta horien aurkako jarduketa guztien aurka agertzea.
- d) Zuzentasunez eta duintasunez jardutea. Bereziki, ez dute ustelkeria ekimenik egikarituko, eta ustelkeriaren aurka egongo dira.
- e) Beraien jardun profesionalak hierarkia eta menderakuntza printzipioak beteko ditu. Obedientziaren barne ez dira babestuko nabarmenki delituak diren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoak diren ekimenak.
- f) Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritzea eta Justiziari laguntzea Legean ezarritako terminoekin bat eginez.

12. artikulua.- Beste Indar eta Segurtasun Kidegoekin koordinatuta egotea.

Udaltzaingoa Ertzaintzarekin koordinatuta egongo da, eta Ertzaintza eta Udaltzaingoa lankidetzan aritzeko Euskadiko Administrazio Autonomoaren eta Getxoko Udalaren arteko lankidetzan-hitzarmen esparruan jasotakoak eta jarduketa protokoloan jasotakoak beteko ditu. Era berean, indarrean dagoen legeriarekin bat eginez, gainerako Segurtasun Indar eta Kidegoekin lankidetzan aritu beharko da.

13. artikulua.- Harremanak herritarrekin.

1. Udaltzaingoa jarduketak komunitatearen arabera egokitu beharko ditu, honako printzipioekin bat eginez:
 - a) Une oro tratu zuzena eta arretatsua ematea herritarrei, enpatia izatea eta herritarrei laguntzea berehala jardun beharreko egoeretan, arriskuak eta babesgabezia egoerak saihesteko.
 - b) Inpartzialtasunez jardutea, modu ekitatiboan jardunez eta pertsona eta talde guztiak, tradizioak, sinesmenak edo bizitza estiloak berdintasunez errespetatuz, betiere legea betez gero eta herritarren segurtasuna arriskuan jartzen ez baldin bada.
 - c) Saihestea arraza, etnia, erlijioa, sinesmenak, sexua, sexu orientazioa, adina, ideologia, aniztasun funtzionala edo antzekoak oinarri dituzten diskriminazioak.
 - d) Profesionalak direla egiaztatuko dute beharrezkoa denean, eta jarduten dutenean pertsonak hala eskatuz gero. Polizia jarduketa guztien aurretik herritarren aurrean identifikatuko dira, eta bermatu egingo dute herritarrak beraien izaera profesionalaren jakitun direla. Horretarako, araubidezko uniformeak jantzita lanean daudenean, agenteak identifikatzeko bereizgarri pertsonala ikusgarri eramango dute.
 - e) Beraien lanaren eraginpekoak diren pertsonen beharrezko informazio ulergarria emango diete beraien jardunari buruz, eta arreta berezia eskainiko diete delituen biktimei eta bereziki zaurgarriak diren kolektiboetako pertsonen.
 - f) Kontuan hartuko ditu herritarren hizkuntza-eskubideak, euskararen erabilera normalizatzeko Oinarrizko Legean eta/edo garatzeko araudian aitortutakoak, euskararen erabilera sustatuz, herritarren komunikazio-hizkuntza aukeratzeko eskubidea errespetatuz, erraztuz eta sustatuz.

14. artikulua.- Trataera atxilotutako pertsonen.

Udaltzainek pertsona bat atxilotzen dutenean, Udaltzaingoko kide gisa identifikatu beharko dira eta ordenamendu juridikoarekin bat eginez gauzatuko dituzte izapidetzeak, epeak eta betekizunak. Atxilotuak tratatzeko honako printzipioak beteko dituzte:

- a) Atxilotuta edo beraien zaintzaren menpe dauden pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa zainduko dituzte, eta beraien ohorea, duintasuna eta legezko eskubideak errespetatuko dituzte.
- b) Torturak, tratu ankerrak, gizalegearen aurkakoak edo degradatzaileak ez dituzte emango, eragingo edo onartuko, ez dute nagusi baten edo inguruabar berezien agindurik emango gerra mehatxu edo segurtasun nazionalaren mehatxu gisa, eta ez dituzte bestelako larrialdi publikoak justifikazio gisa erabiliko.
- c) Beraien zaintzan dauden pertsonen osasuna guztiz babestuta dagoela bermatuko dute. Hala behar denean, laguntza medikoa emango diete eta haiei arreta ematen dieten langileen jarraibideak beteko dituzte, eta beti zainduko dute zaintza bermatzeko beharrezko segurtasun baldintzak betetzen direla.
- d) Atxilotutako pertsonen eskubideak errespetatu beharko dituzte, aplikatu beharreko esparru juridikoa kontuan hartuz eta betez.

15. artikulua.- Dedikazio profesionala.

Udaltzainek beraien funtzioak dedikazio guztiarekin egikarrituko dituzte, eta beti esku hartu beharko dute, denbora eta lekua albo batera utzita, lanean egon edo ez egon, legea eta herritarren segurtasuna defendatzeko, eta istripuak, hondamendi publikoak edo zoritxar partikularrak gertatzean, laguntza eskaini beharko dute.

16. artikulua.- Sekretu profesionala.

1. Udaltzaingoko langileek sekretu zorrotza gorde beharko dute eta isilpean gorde beharko dituzte, beren zereginak direla eta, dakizkiten gertakari guztiak, zeregin horien egiterapenak edo legearen manuek bestela jokatzeko agintzen ez badiete.
2. Aurreko paragrafoarekin bat etorritik, debekatuta dago gailu mugikorrek grabazioak egitea eta euren eginkizunak betetzeagatik ezagutzen diren irudiak erabiltzea, salbu eta lan-txandan agintean dagoen nagusi hierarkikoak baimenduta egiten bada.
3. Komunikabideren batek bere eginkizunak betetzeagatik ezagutzen diren informazio eta/edo irudiei buruzko edozein eskaera egiten badu, Udaltzaingoko langileek ez dute informazio hori emango, ez idatziz ez eta grafikoki ere, eta jasotako edozein kontsulta Udaleko Prentsa Kabinetera bideratuko dute.

17. artikulua.- Erantzukizuna.

1. Udaltzainek zuzeneko ardura eta ardura pertsonala dute jardun profesionalan legezko arauak urratuz edo ez betez egikaritzen dituzten ekimen guztiekiko, baita beraien lanbidea eta aurretiaz adierazitako printzipioak arautzen dituzten araubide guztiekiko ere, albo batera utzita Administrazio Publikoek, ekimen horiek direla eta, izan ditzaketen ondare erantzukizunak.
2. Udaltzainek beraien nagusiei jakinarazi beharko diete kode deontologiko profesionalaren urraketak gertatu direla edo horiek gertatzeko arriskua dagoela.

II. TITULUA.- LANGILEEN PLANTILLA, EGITURA, ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIOAK

I. KAPITULUA. LANGILEEN PLANTILLA ETA EGITURA

18. artikulua- Plantila eta lanpostuen zerrenda.

- 1.- Udaltzaingoaren plantilla Udaleko osoko bilkuran onartuko da eta Udaltzaingoa antolatzen den eskala eta kategoria desberdinei dagokien plaza-kopurua zehaztuko du.

2.- Lanpostuen zerrendan eskala eta kategoria desberdinetako funtzionarioentzat erreserbatutako Udaltzaingoaren Kidegoko lanpostuen multzoa adieraziko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 120. artikulutik eratorritako salbuespenekin, eta lanpostu bakoitzaren betekizunak adieraziko dira, une bakoitzean indarrean dagoen funtzionario-legeriak ezarritakoaren arabera.

19. artikulua.- Kidegoaren buruzagitza.

Kidegoaren burua pertsona bakarra izango da eta Udaltzaingoaren zuzeneko agintaria izango da. Pertsona hori Alkatetzak izendatuko du eta komisario kategoria izango du.

20. artikulua.- Egitura. Eskalak eta kategoriak.

1. Getxoko Udaltzaingoa honako eskala eta kategorietan banatuta dago:

ESKALA BETEARAZLEA

- a) Komisarioa
- b) Komisariordea

IKUSKAPEN ESKALA

- a) Ofiziala
- b) Ofizialordea

OINARRIZKO ESKALA

- c) Agente lehena
 - d) Agentea
2. Eskalak honako talde eta azpitalde profesionaletan daude sailkatuta:
- a) Eskala betearazlea A taldean sailkatuta dago, A2 azpitaldean.
 - b) Ikuskapen eskala C taldean sailkatuta dago, C1 azpitaldean.
 - c) Oinarrizko eskala C taldean sailkatuta dago, C1 azpitaldean.
3. Eskaletarako titulazioa funtzio publikoari buruz indarrean dagoen araubidean Taldeari eta Azpitaldeari dagokiona izango da.

II. KAPITULUA. ANTOLAMENDUA ETA ERAKETA

21. artikulua.- Antolamendua

Buruzagitzaren agindupean, Udaltzaingoa atal, unitate, lantalde eta patruila hauetan antolatuko da:

- a) Ataletako nagusiak ofizialak izango dira, eta Atalak Unitateetan banatuko dira.
- b) Unitateetako nagusiak txandakako ofizialordeak izango dira, eta Unitateak Lantaldeetan banatuko dira.
- c) Lantaldeetako nagusiak txandakako agente lehenak izango dira, eta Lantaldeak Patruiletan banatuko dira.

d) Patruilak udaltzainek osatuko dituzte.

22. artikulua.- Ordezkapenak karguan

1. Agintari lanpostuetako ez egote puntualak ordezkatzeko modu automatikoan egingo dira, zuzenean azpiko kategoriako antzinasunaren arabera, eta pertsona batek baino gehiagok antzinakotasun bera izanez gero, emakume/gizon ratioa pareko bilakatzera joko da ardura postuei dagokionean.
2. Agintari lanpostuetan ez egote luzeak ordezkatzeko, hau da, baimen, lizentzia eta baja egoeretan, kidegoko buruzagitzak zuzenean egingo du ordezkapena, eta ordezkatu beharreko lanpostuaren zuzeneko goiko/azpiko kategoria hierarkikoan dagoen langileak egingo du ordezkapena, antzinasun ordenari jarraiki.
3. Hamar egun baino gehiagoko absentziengatik edo komisariordeak ordezkapena bete ezin duenean, Kidegoko Burutzak proposatutakoak egingo du ordezkapena, dagokion Alkatetzaren ebazpenaren bidez.

23. artikulua.- Eraketa

Udaltzaingoak honako Atalak, Unitateak eta Lantaldeak ditu:

1. Trafiko eta Bide Segurtasun Atala

Honako Unitateek osatzen dute:

1.1. Trafiko Unitatea.

Honako Lantaldeek osatzen dute:

1.1.1. Trafiko Mugikortasun Lantaldea.

1.1.2. Trafiko Hurbiltasun Lantaldea.

1.2. Bide Segurtasun eta Zerbitzuen Unitatea.

Honako Lantaldeek osatzen dute:

1.2.1. Atestatuen Lantaldea.

1.2.2. Ibilgailuen Gordailu Lantaldea.

2. Herritarren Babes eta Segurtasun Atala

Honako Unitateek osatzen dute:

2.1. Bizikidetzeta eta Segurtasun Unitatea.

Honako Lantaldeek osatzen dute:

2.1.1. Herritarrak Babesteko Lantaldea.

2.1.2. Auzoetako Polizia Lantaldea.

2.2. Diligentzia eta Ikerketa Unitatea.

Honako lantaldeek osatzen dute:

2.2.1. Salaketa eta Diligentzia Penalen Lantaldea.

2.2.2. Ikerketa Lantaldea.

2.3. Saltokien/Enpresen Unitatea.

Honako lantaldeek osatu izango dute:

2.3.1. Saltokiei eta enpresei arreta emateko Lantaldea.

3. Koordinazio eta Plangintza Atala.

Honako unitateek osatu ahal izango dute:

3.1. Herritarrei Arreta Emateko eta Koordinaziorako Unitatea.

Honako Lantaldeek osatzen dute:

3.1.1. Arazoak Koordinatzeko Lantaldea.

3.2. Planifikazio Unitatea.

Honako Lantaldeek osatzen dute:

3.2.1. Anlisi, Plangintza eta Kalitate Kudeaketako Lantaldea.

3.3. Mantentze Unitatea

Honako lantaldeek osatzen dute:

3.3.1. Tailer Mekanikoko Lantaldea.

3.3.2. Jantzi eta Ekipamendu Lantaldea.

Udaltzaingoaren Atalen barnean, egikaritze funtzionalaren ondorioetarako, bestelako Unitateak eta/edo Lantaldeak egon ahal izango dira, beharren arabera sortu ahal izango direnak. Hori guztia Ebazpen baten bidez egingo da; hala ere, horrek ez du aldatuko araudi honen edukia.

Kidegoko Burutzak zehaztuko ditu Unitate eta Atal bakoitzari atxikitako agenteen zuzkidurak.

III. KAPITULUA. FUNTZIOAK.

24. artikulua. Komisarioaren funtzioak.

1. Kidegoaren titulartasuna eta buruzagitza bere gain hartzea eta Udaltzaingoaren zuzeneko agintaria izatea.
2. Kidegoko zerbitzu guztien jarduna eta funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, edozein unetan eta behar beste unitateak eta instalakuntzak ikuskatuz, eta egokitzen jotzen dituen aginduak eta jarraibideak ematea zerbitzu horiek ahalik eta hobekien funtzionatzeko.
3. Alkatetzari edo Udaltzako kideei laguntzea Kidegoa ordezkaturik egon behar den ekimenetan eta/edo Alkatetzak hala eskatuz gero.
4. Berriaz hala eskuordetzen ez baldin bada, bera joatea udal mugartean gertatutako larritasuneko gertakariaren lekura, dagozkien zerbitzuak zuzenduz eta koordinatuz, eta beharrezko segurtasun neurriak ezarri. Alkatetzari berehala emango dio gertakariaren berri, bere ustez hala egin behar duenean.
5. Alkatetzan aurkeztea egokitzen jotzen dituen edo eskatzen zaizkion zerbitzuen funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko txostenak eta plangintza eta koordinazio proiektuak, zerbitzua eraginkorrago izateko.
6. Giza baliabideen eta baliabide materialen beharrak ebaluatzea, gastu eta inbertsioei buruzko aurrekontu proposamenak ebaluatzea eta beharrezko planteamenduak egitea Kidegoaren prestakuntza profesional etengabea bermatuta egon dadin.
7. Alkatetzari proposatzea kondekorazioak eta/edo langileen aintzatespenak, indarrean dagoen legeriarekin bat eginez, eta diziplina prozeduren hasieraren berri ematea, langileek diziplina arauhausteak egiten dituztenean.
8. Alkatetzari proposatzea Atal, Unitate eta Lantalde bakoitzean egon beharreko langile kopurua, eta esleipenak eraginkorrak direla zaintzea, kasuan kasuko prozedurekin bat eginez.
9. Antolatzen dituen agintarien bileretan presidente gisa aritzea plantillako eskala ezberdinetan, zereginak eta helburuak aztertzeke eta ebaluatzeke edo intereseko gaiak jorratzeke, zerbitzuei edo pertsoneri eragiten dietenak.
10. Kalitate planetan parte hartzea, Udalaren Batzorde Informatiboetan laguntzea edo Udal Organoetan laguntzea, Kidegoa ordezkatzeko bera egotea beharrezkoa denean.
11. Bestelako Polizia Buruzagitzekin, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Ordezkaritzarekin eta Trafikoko Probintzia Buruzagitzarekin komunikazio maila egokia mantentzea, segurtasunaren, herritarren babesaren eta trafikoaren alorrean lankidetzak eraginkorra izateko. Beharrezko harremanak izatea fiskaltzarekin, epaileekin eta epaimahaiekin, kidegoari dagozkion funtzioak egikaritzuz. Segurtasuneko tokiko koordinazio batzordean parte hartzea.
12. Bere kargua dela-eta eta/edo hala agindu duelako, Herritarren Segurtasunerako Arloaren erantzukizuna, esleitzen bazaio gauzatu beharreko funtzioak egikaritzea.
13. Euskara udaltzaingoa lan hizkuntza izateko beharrezkoak diren izapideak eta ekimenak bultzatzea.

25. artikulua.- Komisariordearen funtzioak.

1. Udaltzaingoaren buruzagiodetza bere gain hartzea edo buruzagitza ordezkatzeko, hala behar denean.

2. Mendeko langileei eskatzea beraien zereginak zuzentasunez betetzeko, albo batera utzi gabe bakoitzari dagozkion eskudantziak, egitura hierarkikoarekin bat eginez.
3. Buruzagitzari aurkeztea egokitzat jotzen dituen proposamenak, zerbitzuek hobeto funtzionatu dezaten.
4. Buruzagitzari proposatzea zerbitzua etengabe hobetzeko planak, kalitate prozedurekin bat eginez. Kalitate Batzordearen bileren deialdiak egitea eta bilera horiek koordinatzea.
5. Ataletako ofizialak koordinatzea, helburuak eta zereginak bete daitezzen.
6. Hierarkikoki mendekoak diren eskaletako nagusiekin aldizka bilerak egitea eta horietan buru gisa jardutea, horiei jakinarazteko kudeaketan jarraitu beharreko zuzentzarauak, eta aholkuak ematea galdetutako kontu guztiei buruz.
7. Urtero beharrak aurreikustea, eta zerbitzuetako gastuen eta inbertsioen plangintzak prestatzea.
8. Udaltzaingoko langileek zerbitzua hobetzeko dituzten proposamenak ezagutzea, langileen kezkei buruzko interesa izatea eta buruzagitzan aholkuak ematea kexen, iradokizunen edo eskakizunen hobekuntza eta irtenbide proposamenei buruz.
9. Kidegoaren buruzagitzari aurkeztea Atal, Unitate eta Lantalde bakoitzeko langile kopuruaren ebaluazioa, beharrezkotzat jotzen duenean eta/edo nagusi hierarkikoak hala eskatzen dionean.
10. Unitateetako langileen etengabeko prestakuntza proposatzea eta koordinatzea.
11. Langileen urteko oporren plana proposatzea eta onestea.
12. Bere nagusi hierarkikoak agintzen dituen eta bere karguari dagozkion zereginak eta eginbeharrak bere gain hartzea.

26. artikulua.- Ofizialen funtzioak.

1. Mendeko langileei eskatzea beraien zereginak zuzentasunez betetzeko, albo batera utzi gabe bakoitzari dagozkion eskudantziak, egitura hierarkikoarekin bat eginez. Bere kargura dauden Unitateetako nagusiek osatutako lantaldearen buru izatea, horien funtzioak koordinatzea eta helburuak eta ekintzak esleitzea.
2. Egunero aurreko eguneko gorabeherak eta zereginak berrikustea, egon daitezkeen arazoak zuzenduz. Zereginen jarraipena egitea, emaitzak aztertuz eta nagusi hierarkikoei hobekuntza ekintzak proposatuz.
3. Arloko teknikariekin koordinatzea akta, salaketa eta zigor espedientei dagokien informazioa. Unitate desberdinetan eskuratu behar diren materialen erosketak koordinatzea, eta horren inguruko beharrak Buruordetzari proposatzea.
4. Koordinazio eta Plangintzako ofizialari jakinaraztea onartutako helburuekin lotutako eguneroko zereginak, hark eguneko zeregin eta ekintza guztiak programatu ditzan eta, ofizialordeekin koordinatuta, lan-txanda guztietan modu homogeneoan egin ditzan. Horiek betetzen diren ikuskatzea.
5. Lortzen diren ISO ziurtagirien kalitate prozesuak betetzen direla ikuskatzea, horien jarraipena egitea eta emaitzak aztertzea. Modu aktiboan lankidetzan aritzea zuzendariordearekin, polizia funtzioen kalitatea etengabe hobetzeko.
6. Unitateetako langileek eskatutako baimen edo lizentziak baimentzea. Eskatutako txanda aldaketak baimentzea, astero eskuragarri dauden langileak egiaztatzea eta beharrezkoa denean, langile osagarriak eskatzea.
7. Nagusi hierarkikoei kondekorazioak eta/edo udaltzainen jokaera nabarmengarriengatik aintzatespenak proposatzea, horiek lanean zeuden bitartean eginez gero. Nagusi

- hierarkikoei proposatzea informazio espedienteak irekitzeko ustezko diziplina arau-hausteak gauzatu badira, langileek horiek lanean zeuden bitartean egindakoak izanez gero.
8. Erantzutea herritarrek Unitateetako zerbitzuei buruz dituzten abisuei, kexei eta iradokizunei eta horiek izapidetzea, Udalak horretarako ezarritako baliabideen bitartez.
 9. Atalari dagozkion gaiei buruzko gorabeherak eta/edo salaketak hilero aztertzea. Trafiko istripuen eta segurtasun arloko delitu-indizeen mapak egitea, arrisku eremuak adieraziz eta estatistikak azalduz, agenteek horien berri izan dezaten.
 10. Estrategia diseinatzea eta proposatzea arrisku-eremuetan istripuak eta delituak prebenitzeko. Nagusi hierarkikoei horien berri ematea. Aldizka bilerak egitea, gutxienez hilabetean behin, ofizialordeekin, eta elkarri informazioa ematea zerbitzuarekin lotutako guztiari buruz, eta jarduketa irizpideak ezartzea koordinazio alorrean.
 11. Bilerak egitea ekimen sustatzaileekin eta Jai Batzordeekin, ekitaldietan egongo diren polizien inguruan erabakiak hartzeko eta hori guztia koordinatzeko. Babes Zibileko Sailarekin lankidetzan aritzea zerbitzua zuzentasunez emateko edozein larrialdiren aurrean, bide publikoan eta jarduketa-protokoloetan egingo diren ekimenetan.
 12. Nagusi hierarkikoei agindutako gainerako funtzioak eta/edo bere kargua dela-eta egin beharrekoak.

27. artikulua.- Ofizialordearen funtzioak.

1. Bere mendekoei zereginak egiteko eskatzea, albo batera utzita bakoitzaren esleipenak egitura hierarkikoarekin bat eginez.
2. Laneko txandan Unitateetako nagusi gisa jardutea eta zerbitzua koordinatzea lehen agenteen bitartez.
3. Koordinazio eta plangintza ofizialetan programatutako zereginak langileei esleitzea bere laneko txanda hastean, eta horiek betetzeko jarraibideak ezartzea.
4. Polizia prozedurak zorrotzasunez betetzen direla zaintzea, eta bere laneko txandan atxikitako Unitateen eta Lantaldeen jarduketa irizpideak bateratzen direla zaintzea.
5. Bere laneko txandan atxikitako langileek ibilgailuak, elementuak eta ekipamenduak egokitasunez erabiltzen dituztela zaintzea.
6. Laneko txanda bakoitzean langileen higiena eta uniformetasuna berrikustea, eta egokiak ez baldin badira, lanean hasi aurretik horiek zuzentzea eta nagusiei jakinaraztea, zuzenketak egiten ez baldin badira.
7. Koordinazio eta Planifikazio ofizialari jakinaraztea bere mendeko langileen jarduketa txalagarriak eta nabarmenduak, baita txandan gertatu daitezkeen diziplina urratzeak jakinaraztea ere.
8. Lan egitea polizia funtzioaren kalitate etengabea hobetzeko.
9. Nagusiek agindutako txostenak egitea.
10. Nagusi hierarkikoei agindutako gainerako funtzioak eta/edo bere kargua dela-eta egin beharrekoak.

28. artikulua.- Lehen agentearen funtzioak.

1. Ofizialordearen lanpostua, hura ez baldin badago, ordezkatzeko agente lehenaren kategorian antzinatasunaren arabera, eta lanpostu horren funtzioak egikaritzea.
2. Bere mendekoei zereginak egiteko eskatzea, albo batera utzita bakoitzaren esleipenak egitura hierarkikoarekin bat eginez.

3. Esleitutako Unitateetako langileei jarraibideak ematea.
4. Hierarkikoki mendekoak diren langileei agindutako zerbitzuak koordinatzea eta ikuskatzea.
5. Hierarkikoki mendekoak diren langileei agindutako jarraibideak eta zerbitzuak betetzen direla zaintzea, eta lan egiteko ezarritako ordutegia eta modua betetzen direla zaintzea.
6. Aldizka eta maiz ikuskaritza bisitak egitea beraien mendeko langileek lan egiten duten lekuetara, nola egiten duten lan egiaztatzeko eta gerta daitezkeen arazoak zuzentzeko.
7. Mendeko langileekin zuzenean lan egitea bere funtzioetan.
8. Bere laneko txandako langileen sarrerak eta irteerak berrikustea eta Unitateko agenteek erabilitako ibilgailuak eta ekipamendua berrikustea, parteak betez eta zuzeneko nagusiarri gabezien edo matxuren berri emanaz.
9. Bere nagusiei mendeko langileek egindako jarduketa txalogarrien eta nabarmengarrien berri ematea, baita bere laneko txandan gertatu daitezkeen diziplina urratzen berri ematea ere.
10. Nagusiek bere eskumeneko gaiak buruz agindutako txostenak egitea.
11. Lan egitea polizia funtzioaren kalitatea etengabe hobetzeko.
12. Nagusi hierarkikoen agindutako gainerako funtzioak eta/edo bere kargua dela-eta egin beharrekoak.

29. artikulua.- Agenteen funtzioak.

1. Agenteek kargu horretako funtzioak zorrotasunez bete behar dituzte. Funtzio horiek Euskal Herriko Poliziaren Legean eta araudi honen 10. artikuluan zehaztuta daude. Horrez gain, Unitateko eta/edo Lantaldeko funtzio espezifikoak ere gauzatu behar dituzte.
2. Nagusi hierarkikoen agindutako gainerako funtzioak, edo kargua dela-eta egin beharrekoak.

III. TITULUA. KIDEGOAREN FUNTZIONAMENDUA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

30. artikulua.- Erregelamendu bitartekoa.

1. Zerbitzuarekin lotutako aginduen, txostenen eta eskarien izapidetzea erregelamendu bitartekoaren bidez egingo da, eta horretarako, Kidegoaren egitura hierarkikoa erabiliko da.
2. Aginduak bete behar dituztenek agindu horiei buruzko zalantzak izanez gero, aginduak garrantzitsuak edo konplexuak direlako, horiek idatziz edo bitarteko elektronikoen bidez adieraziko dira, ahalik eta azkarren.
3. Nagusi hierarkikoen erreklamazioak, eskariak edo kexak egitean, idatziz edo baliabide elektronikoen bidez egingo dira, eta derrigorrean ahalik eta azkarren erantzunak dira.
4. Udaltzaingoko Atal guztien artean koordinazio gehiago egoteko, nagusiek eta ofizialek zehaztutako eta agenteek egin beharreko ekintzak eta zereginak Koordinazio eta Plangintza ofizialaren bitartez bideratuko dira, eta berak antolatuko ditu polizia ekintzak eta gainerako zereginak. Ofizial horrek polizia ekintzaren berri emango die laneko txanda bakoitzeko ofizialordeei, eta horiek, agindu bezala eta irizpide berberekin, lehen agenteei eta agenteei jakinaraziko diete, haiek bete ditzaten.

31. artikulua.- Egiatagiri profesionala.

1. Udaltzaingoko langileek egiatagiri profesionala izango dute, honakoen bitartez osatua: identifikazio profesionaleko txartela, xafla-ikurra eta dokumentuak eramateko zorro moldeztatua, azken hori elementu horien euskarria izango delarik, elementuok babesteko eta erakusteko.
2. Egiatagiri profesionalak, bere diseinuak, ezaugarriek eta berau emateko, erabiltzeko eta indarraldia zehazteko araubide juridikoak Euskal Herriko Poliziaren Legean xedatutakoak eta Segurtasun sailburuaren aginduan Euskal Herriko poliziaren egiatagiri profesionaleko elementuei buruz jasotakoak beteko dituzte.
3. Funtzionario izaera galtzeak edo zerbitzu aktiboaz, bigarren jardueraz edo segurtasun-zerbitzuen esparruko lanpostuetako zerbitzu berezietan bestelako administrazio-egoera batera pasatzeak, akreditazio profesionalak entregatzera eta lotutako ziurtagiri elektronikoak ezeztatzen behartzen du.

32. artikulua.- Jokaera arauak, irudi profesionala eta pertsonala.

Udaltzaingoaren jarrera eta irudi profesionala eta pertsonalaren jokaera-arauen xedea da herritarrak errespetuz tratatzea eta Getxoko udaltzainak identifikatu ahal izatea, baita agenteen eta herritarren osotasun fisikoa babestea ere. Horretarako, udaltzainek hauek egin beharko dituzte:

- a) Herritarrekin jardutean integritatea, gaitasuna, diligentzia, dedikazioa, errespetua eta etika izatea.
- b) Lanera higie-ne baldintzak betez joatea eta uniformeak jantztea, uniformeak erabiltzea derrigorrezkoa ez den kasuetan salbu.
- c) Orrazkerak aurpegia ikusteko moduan utzi behar du, eta txapela edo kaskoa erabili ahal izateko modukoa izan beharko da.
- d) Uniformeak lotuta eta garbituta eraman beharko da, eta bide publikoan egotean txapela beti jantzita eraman beharko dute, justifikatutako kasuetan izan ezik.
- e) Eskuak ez dituzte poltsikoetan sartu behar, ez dute erreko ezta murtzikatuko herritarrekin daudenean, eta aurpegia ikusteko moduan izango dute. Eguzkitarako betaurrekoak eraman ez gero, herritarrekin daudenean kendu egin beharko dituzte.
- f) Postura zuzena eta egokia izan beharko da, eta beraien funtzioetan axolagabekeria edo utzikeria islatzen duten jarrerak albo batera utzi beharko dituzte.
- g) Lanean daudenean ez dute edari alkoholikorik, droga toxikorik, estupefazienterik edo substantzia psikotropikorik kontsumituko, ezta bestelako legez kanpoko drogarik ere. h) Herritarrekin, agintariekin edo beste edozein erakundeko ordezkariekin harremanetan lehen hitza euskaraz egitea, eta harremana euskaraz mantentzeko arazoak izanez gero barkamenak eskatu eta gaztelaniara pasa.

33. artikulua. Agurra.

Agurraren bitartez, poliziek errespetua eta gizabidea erakusten dute; beraz, derrigorrean honakoak agurtu beharko dituzte:

- a) Herritarrak, beraiekin hitz egiten dutenean.
- b) Kidegoko nagusi hierarkikoak, baita gainontzeko lankideak ere.
- c) Ekimen ofizialetan edo lanean daudenean, beste kidego batzuetako kideak.

d) Agintariak.

34. artikulua.- Gorabeheren berri ematea.

1. Zerbitzu prestazioaren lekura joaten den buruari jazotako gertakari edo inguruabarren berri emango zaio, edo gorabeherarik gertatu ez dela esango zaio, eta beraz, zerbitzua normaltasunez garatzen ari dela.
2. Zerbitzu prestazioaren lekuan agente bat baino gehiago egonez gero, gorabeherak kategoria altuena duenari jakinaraziko zaizkio, eta hura ez baldin badago, karguan antzinakotasun gehien duenari.

35. artikulua.- Txandak.

1. Zerbitzu prestazioaren ordutegia Udalak zehaztuko du funtzionarioen laneko baldintzak definitzeko prozeduren bidez. Horretarako, dagozkien laneko egutegiak ezarriko dira eta txandak zehaztuko dira, langileen eskuragarritasunarekin eta egin beharreko zerbitzuekin bat eginez.
2. Larrialdiak edo hondamendiak gertatzen direnean, eta oro har egoera bereziek hala eskatzen dutenean, langile guztiek agindutako zereginak gauzatu beharko dituzte, albo batera utzi gabe aplikatu beharreko ordainak, eta hori guztia larrialdia edo beharra bukatu arte. Beraz, telefono zenbakia eta helbidea jakinarazi beharko dituzte, baita horien aldaketak ere.

36. artikulua.- Lanaldia.

1. Udaltzaingoko langileen urteko lanaldia Udaleko gainerako funtzionarioei ezartzen zaien berbera izango da.
2. Lanaldi hori luzatu egin ahal izango da zerbitzuaren beharrak direla-eta, eta horrelako kasuetan, Udalean ezarritako akordioetan zehaztutako ordainak aplikatuko dira.

II. KAPITULUA. MODULATUTAKO ZERBITZU AKTIBOA ETA BIGARREN JARDUERA

37. artikulua.- Modulatutako zerbitzu aktiboa.

Horren xedea da ezartzea adinaren arabera modulatutako zerbitzu aktiboa aintzatesteko irizpideak eta baldintzak, hori guztia Euskal Herriko Poliziaren Legearen 85. artikuluan ezarrita dagoelarik:

1. Langileen plantillan eskuragarri dauden polizien arabera, Udaltzaingoaren Buruzagitzak txanda bakoitzean zerbitzua eskaini behar duten agenteen gutxienezko kopurua ezarriko du.
2. Zerbitzuaren arazoiek hala ahalbidetuz gero, eta aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat eginez, Udaltzaingoko funtzionarioek zerbitzu aktibo modulatua eskatu ahal izango dute 55 urtetik aurrera. Zerbitzu aktibo modulatuko langileek ez dute gaueko txanda egingo

astelehenetik ostegunera biak barne, jai bezperak salbuetsiz, eta egun horietan, goizeko edo arratsaldeko txandetan lan egingo dute.

3. Adina dela-eta zerbitzu aktibo modulatu baimentzeko, horretarako adina izatean aurretiazko erretiro eskaria egiteko konpromisoa adierazi beharko da, eta hori guztia kasu bakoitzean aplikatu beharreko Gizarte Segurantzako araubidearekin bat eginez. Konpromiso hori betetzea atzeratu ahal izango da erretiro aurreratuko adina betetzen den unean oinarri arautzailearen % 100eko pentsioa jasotzeko beharrezko eskubideak betetzen ez baldin badira.
4. Udalak, salbuespen gisa eta arrazoituta, aintzatespen berriak urteko kupo batera mugatu ahal izango ditu, ezin baldin bada polizia zerbitzuaren jarraikortasuna bermatu.

38. Artikulua.- Bigarren jarduera.

1. Xedea

- a) Udaltzaingoko langileen bigarren jardueraren xedea polizien funtzioak egikaritzea da; horrela, lanpostuaren funtzioak egikaritzeko gaitasun psikofisiko egokia bermatuko da.
- b) Aldizka, Udalak lanpostuen zerrendan gehituko ditu Udaltzaingoko funtzionarioek bigarren jardueran estali ditzaketan lanpostu kopuruak.

2. Bigarren jarduerara igarotzeko arrazoia

- a) Bigarren jarduera-egoerara igaro ahal izango dira zenbait udaltzainek trebetasun psikikoak edo fisikoak nabarmenki galdu dituztenean eta modu jarraituan kategoriako funtzioak guztiz egikaritzeko gaitasuna beharrezkoa ez denean, baina polizien oinarritzko zereginak eraginkortasunez egin ditzaketenean. Artikulu honetan adierazitakoaren arabera, bigarren jarduerako aintzatespena zerbitzu aktiboko egoeratik baino ezin izango da sortu.
- b) Araudi honetan aurreikusitako ondorioetarako, polizien oinarritzko zereginak dira ordena eta herritarren segurtasuna mantentzeko eta berrezartzekoak, delituak prebenitzea, horiek ikertzea eta errudunak jarraitzea; horiek guztiak eraginkortasunez egiteko oinarritzko trebetasunak behar dira, su-armak eta gainerako araubidezko defentsak erabiltzeko, ibilgailuak ohiko baldintzetan gidatzeko eta gainera, oinarritzko trebetasun mugitzailea/motorra ere izan beharko da.

3. Bigarren jarduerako egoera aintzatestearen ondorioak

- a) Bigarren jarduerako administrazio-egoera aintzatestean, zehaztu egingo da lanpostuarekiko atxikitzea etetea, salbuetsiz lanpostu hori bigarren jardueran dauden langileek bete ahal izatea, eta hala, lanpostua behin-behineko atxikipenean esleituko zaio hori guztia barne hartu dezakeen beste lanpostu bati.

Bigarren jarduerako lanpostuetarako hautagai bat baino gehiago egonez gero, esleipena Getxoko Udaleko Udaltzaingoko antzinatasun ordena zorrotzaren arabera egingo da, eta berdinketa egonez gero, adinez nagusiena den hautagaiari esleituko zaio.

- b) Bigarren jarduerako egoeran dauden langileak buruzagitzaren menpe geratuko dira, eta ohiko polizia funtzioak gauzatu beharko dituzte zerbitzu arrazoiek hala eskatzen dutenean.
- c) Bigarren jardueran dauden langileek, era berean, Euskal Herriko Poliziaren Legean eta bere garapen arauetan jasotako aurreikuspenak betez, bigarren jardueran dauden

langileek gauzatu ahal dituzten lanpostuak beteko dituzte, lanpostuen zerrendan ezarritakoarekin bat eginez.

- d) Bigarren jarduerako administrazio-egoeran dauden langileek eskubidea dute adinaren araberrako zerbitzu aktiborrako aurreikusitako modulazio-baldintza berberak izateko.
- e) Bigarren jarduerako egoerak iraun bitartean, funtzionarioek Euskal Herriko Poliziaren Legean, bere garapen-arauetan, araubide honetan eta aplikatu beharreko gainerakoetan ezarritako estatutu araubidea beteko dute.

4. Ikurrak eta armak

Lanpostu bat betetzen duten bigarren jarduerako funtzionarioek araubidezko armak izaten jarraituko dute.

39. artikulua.- Bigarren jarduerako egoerara pasatzeko prozedura.

1. Epaimahai ebaluatzailea izendatzea eta epaimahairen eraketa

- a) Epaimahai ebaluatzailea hiru pertsonak osatuko dute eta horiek Alkatetzak izendatuko ditu. Horietatik bat sindikatuertako ordezkariet proposatuko dute.

Horretz gain, ordezkioak ere izendatuko dira, eta horiet titularrak ordezkatueto dituzte titularrak ez daudenean, lanpostua hutsik dagoenean edo titularrak gaixorik daudenean.

Sindikatu-ordezkarietzak hilabeteko epean proposatu beharoko du bere ordezkaria, eskatzen denetik zenbatzen hasita. Epea igarotakoan proposamenik bidaltzen ez badute, erakundeak kide bat proposatuko du erakunde sindikalak hala proposatuta, Udalean ordezkarietz gehien duenak hain zuzen ere.

- b) Epaimahaiak, bere funtzioa ondo betetzeko, eskatu ahal izango du egokitze jotzen dituen espezialistek parte hartzea eta beharrezkotzat jotzen dituen frogaa, aintzatespen edo miaketa medikoak izan ahalko ditu. Espezialista horiet ezingo dute inolaz ere bozkatu.
- c) Funtzionamendua errazteko, epaimahaiak idazkaria izango du, hitza duena baina botorik ez, eta idazkari hori Erakundeak aukeratuko du kargu horretarako kualifikazioak dituzten Udaleko lanpostuetako titularren artean.
- d) Epaimahai ebaluatzaileak eratzeko helburuaz, Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren lankidetzaa eskatu ahal izango du Araudi honetan aurreikusitakoarekin bat eginez.

2. Epaimahaiaren jarduketa

- a) Epaimahai ebaluatzaileko kideak ebatzi beharreko espedienteak daudenean batuko dira. Berehala eta/edo ez ohiko moduan batu ahal izango dira Presidentetzak hala xedatzen duenean.
- b) Lehenengo deialdian, bilerak egiteko eta erabakiak eta akordioak hartzeko organoa baliozkotasunez eratzeko, eskatuko da bertan egoteko presidentea, idazkaria eta gutxienez epaimahaia osatzen duen beste kide bat; titularrak edo ordezkariak izatea albo batera utzita.
- c) Lehenengo deialdian Epaimahaia eratzen ez baldin bada, bigarren deialdia egingo da, bilera berria aurreko bilera egin ez den egunetik aurrera zenbatzen hasita zazpi eguneko epean egiteko, eta epaimahaia eratzeko gutxienez, aurreko paragrafoan adierazitako

pertsonak bertan egon beharko dira. Auzitegia eratzeko eska daitekeen gutxieneko quoruma lortzen ez denean, behar adina aldiz deitu ahal izango da berriro.

3. Hasiera

Araudi honetan zehaztutako arrazoia dela-eta, bigarren jarduerako egoerara igarotzeko prozedura hasi ahal izango da ofizioz edo interesatuak hala eskatuta, eta ez da beharrezkoa izango Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalen ezintasun iraunkorra aintzatesteko eskaria egitea.

4. Konfidentzialtasuna

Osasunari buruzko informazioaren konfidentzialtasuna dela-eta, funtzionarioek eta gainerako langileek, espedientea izapidetzearen berri dutenek, sekretua gordeko dute interesatuaren datu medikoei buruz; era berean, interesatuak epaimahai ebaluatzailean azaldutakoak eta arrazoiak ere isilean gorde beharko dituzte.

40. artikulua. Azterketa medikoa.

1. Espedientea hasi ondoren, horren berri emango zaio Epaimahai ebaluatzaileari idazkariaren bitartez, eta beharrezko txostenak eta dokumentazioa aurkeztuko dira.
2. Epaimahai ebaluatzaileak interesatuari hitzordua emango dio azterketa medikoa egiteko, eta hark, derrigorrean egin beharko du azterketa eta derrigorrean eman beharko dizkio azalpenak epaimahaiari.
3. Interesatuak ziurtagiri mediko ofizial baten bidez egiaztatzen baldin badu ezin dela epaimahaiaren aurrera joan, epaimahaiak azterketa interesatuaren etxean edo dagokion osasun zentroan egiteko beharrezko lanak egin beharko ditu.
4. Interesatuak azalpenik ematen ez badu edo azalpenak eman ezin izatea behar beste justifikatzen ez baldin badu, deialdia behin baino ez da berretsiko, eta joaten ez bada edo joatearen arrazoia justifikatzen ez baldin badu, epaimahaiak erabakia hartu ahal izango du espedienteko dokumentazioa nahikoa baldin bada, eta jokaera horren berri emango dio eskumenak dituen organoari, beharrezko diziplina erantzukizunak aplikatzeko.

41. artikulua.- Epaimahaiaren erabakia.

Azterketa medikoa eta espedienteko gainerako dokumentazioa kontuan hartuz, Epaimahai ebaluatzaileak erabakia hartuko du eta honakoien inguruan modu argian, berariazkoan eta erabakigarrian azalpenak emango ditu:

- a) Nabaria den ezgaitasuna edo gaitasun murriztua dagoen edo ez, eta modu iraunkorrean trebetasun fisikoak eta/edo psikikoak galtzeko zantzuak dauden kategoriako zereginak zuzentasunez egikaritzeko; eta hori horrela izanez gero, inguruabar horiek polizien oinarriko zereginak eraginkortasunez egitea oztopatzen duten edo ez.
- b) Bigarren jarduerako egoerara igarotzea egokia den edo ez.
- c) Azterketen ondorioz epaimahaiak uste badu funtzionarioa fisikoki ez dela gai edo trebetasunak galdu dituela eta horrenbestez bere funtzioak egikaritzeko modu

iraunkorrean ez dela gai izango, hori guztia irizpenean jasoko du, dagozkion ondorioetarako.

42. artikulua. Entzunaldiaren izapidea.

1. Epaimahaiak irizpena eta akten eta jarduketan kopiak emango dizkio organo izapidegileari, eta hark interesatuari entzunaldia emango dio, hamar eguneko epean alegazioak egin ditzan edo bere defentsarako egokitzen jotzen dituen agiriak edo justifikazioak aurkez ditzan.
2. Interesatua irizpenarekin ados ez badago eta medikuen txostenak edo irizpenak aurkezten baldin baditu, organo izapidegileak horiek epaimahaiari bidaliko dizkio eta hark, horiek ikusi ondoren eta hala badagokio egiaztapenak eta azterketa osagarriak egin ondoren, hasierako irizpena berretsiko du edo beste bat emango du.
3. Entzunaldi izapidetzea bukatu ondoren, organo izapidegileak espedientea izapidetzen jarraituko du, ebazpena emateko.

43. artikulua. Ebazpena.

1. Bigarren jarduerara igarotzeko aintzatespena Alkatetzaren ebazpen baten bidez emango da eta aurretiaz epaimahai ebaluatzaileak irizpena eman beharko du, araudi honetan xedatutako prozedurarekin bat eginez.
2. Epaimahaiaren ebazpenak eskumenak dituen organoa atxikiko du bigarren jarduerako egoera aintzatesteko. Halere, organo horrek ikusten badu irregulartasunen bat dagoela, irregulartasun hori berrikusi ahal izango du, administrazio-prozedura erkidearen arauak aplikatuz.
3. Ebazpena lau hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, hasten denetik aurrera zenbatzen hasita, albo batera utzi gabe epeak luzatu ahal izatea, administrazio-prozeduraren araubide orokorarekin bat eginez.

44. artikulua. - Ofizios hasitako prozedura.

1. Araudi honetan jasotako arrazoia dela-eta, bigarren jarduerako egoerara igarotzeko aintzatespen-prozedura ofizios hasiko da berau hasteko eskumenak dituen organoaren erabaki bidez, bai ekimen propioz edo goiko agindu bidez, edo beste organo batzuek arrazoitutako eskarien bidez.
2. Prozedura hasteari buruzko akordioa interesatuari eta epaimahaiaren idazkariari jakinaraziko zaie hamar eguneko epean, eta idazkariari emango zaizkio Udalean dauden mediku txostenak eta gainerako agiriak.
3. Epearen barnean berriazko ebazpenik ematen ez baldin bada, prozedura iraungitza joko da eta jarduketa guztiak artxibatuko dira, interesatuak hala eskatuta edo ofizios ebazpena emateko eskumenak dituen organoak hala eginda. Hori guztia ebazpena eman beharreko epea bukatu eta hogeita hamar eguneko epean, salbuetsiz prozedura interesatuari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik eten izana; kasu horietan, prozedura ebazteko epearen zenbaketa etengo da.

45. artikulua.- Alderdiak hala eskatuta hasitako prozedura.

1. Interesatuak bigarren jarduerara igarotzeko prozedura hasteko eskatu ahal izango du eskari bat aurkeztuz. Eskariarekin batera bere nahia arrazoitzeko dokumentuak aurkeztu beharko ditu.
2. Bigarren jarduerako egoerara nahita igarotzeko eskaera eginez gero, horretarako adina izatean aurretiazko erretiratze boluntarioa eskatuko denaren konpromisoa hartuko da, aplikatu beharreko Gizarte Segurantzako araubidearekin bat eginez. Konpromiso hori betetzea atzeratu ahal izango da aurretiazko erretiroa hartzeko adinean oinarri arautzailearen % 100eko baliokidea den pentsioa jasotzeko baldintzak betetzen ez baldin badira.
3. Organo eskumendunak berariazko ebazpenik ematen ez baldin badu araudi honetan ezarritako epean, interesatuak bere eskaria ezetsitzat jo beharko du.

46. artikulua.- Trebetasun psikikoak eta/edo fisikoak berrikustea.

1. Bigarren jarduerako administrazio-egoeran dauden langileei aldizka berrikuspen medikoak egin ahal izango dizkie enpresako zerbitzu medikoak, kontuan hartuz bigarren jarduerara igarotzeko arrazoi izan diren murriztutako trebetasun fisikoak eta/edo psikikoak.
2. Gaitasun falta fisikoa eta/edo psikikoa dela-eta, bigarren jarduerako egoerara igarotzea arrazoitu zuten inguruabarrak aldatzen baldin badira, besteak beste gaitasun ezak gutxitu edo gehitu direlako, ofizioz edo alderdiak hala eskatuta, trebetasunak berrikusi egingo dira, eta gaitasun falta fisikoa eta/edo psikikoa dela-eta, bigarren jarduerako egoerara igarotzeko ezarritako prozedura jarraituko da.

47. artikulua.- Behin-behineko neurriak

1. Udaltzaingoko funtzionarioak ez badu eragozpenik lanpostuko funtzioak egikaritzeko eta ebazpenik eman ez baldin bada bigarren jarduerako aintzatespen prozeduran, behin-behinean beste lanpostu batean atxiki ahal izango da berau egikaritzeko gaitasuna duen lanpostuan, edo bere lanpostua dituen murrizketetara egokitu ahal izango da.
2. Artikulu honetan jasotako behin-behineko neurriak aplikatzeko enpresaren edo kanpoko prebentzio zerbitzuaren txosten medikoa beharko da, eta bertan jasota egon beharko dira funtzionarioak bere lanpostua betetzeko dituen arazoak.

48. artikulua.- Bigarren jarduerako funtzioak.

1. Bigarren jarduera, arau orokor gisa, udal bulegoetako eraikinetako segurtasun-zaintzan egikaritzen da, salbuetsiz oztoporen bat egotea trebetasun psikofisikoak nahikoak ez direlako.
2. Udaleko eraikinetako segurtasun-zaintzarako funtzioak esleitzea posible ez denean edo funtzio horiek egikaritzea beharrezkoa ez denean, beste funtzio batzuk ere egin daitezke, kategoriaren eta prestakuntzaren arabera, besteak beste:
 - a) Udaltzaingoak erabiltzen duen materiala eta bitarteko teknikoak kudeatzea eta kontrolatzea (ibilgailuak, transmisio sistemak, arropa, ekipamenduak, eta abar).
 - b) Eragileak ez diren lanetan laguntza ematea, besteak beste merkataritza eta enpresekin, trafikoarekin eta bide segurtasunarekin lotutakoetan.

- c) Erabiltzaileei arreta emateko lanak, analisi eta kudeaketa lanak (herritarrei arreta ematea, analisi estatistikoak egiten laguntzea eta polizia lanarekin lotutako administrazio eta informatika lanetan laguntzea).
- d) Obrak eta zerbitzuak ikuskatzea.
- e) Orokorrean, aholkularitzako jarduera teknikoak, kudeaketako jarduera instrumentalak eta polizia jarduerari laguntzekoak edo horiekin lotutakoak, aurreko paragrafoetan adierazitakoen antzekoak.
- f) Zerbitzuaren ez-ohiko arrazoiak direla-eta, hala behar denean, eta arrazoi horiek iraun bitartean, Alkatetzarentzako eskuragarri geratuko dira, agindu ahal izango diren funtzioak egikaritzeko.

49. artikulua.- Bigarren jarduerako funtzionarioen ordainsariak.

1. Bigarren jarduerako administrazio-egoeran dauden funtzionarioek kategoriako oinarritzko ordainsariak eta aintzatetsitako ordainsari pertsonalak jasoko dituzte, hirurtekoei dagozkienak barne, eta egoera horretan hobetzen jarraituko dute. Ordainsari osagarriei dagozkienez, lanpostuari edo plazari dagozkienak jasoko dituzte.
2. Funtzionarioek ezgaitasun iraunkorra aintzatetsita dutenean Gizarte Segurantzako organoetan eta erretiroa aplikatu behar ez denean, dagozkien ordainsari osagarriak kontzeptu horretan aintzatetsitako aldizkako ordainketa prestazioaren zenbateko berean gutxituko dira.

50. artikulua.- Bigarren jarduera eta adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktibo.

Salbuespenez, adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboko funtzionario batek edo bigarren jarduerako egoeran dagoen batek lanposturik ez baldin badu polizia kidegoarentzako eskuragarri, inguruabar horrek irauten duen bitartean kategoriaren oinarritzko ordainsariak eta ordainsari pertsonalak jasoko ditu, baita azken lanpostuko ordainsariak ere, salbuetsiz berariazko osagarriaren osagai berezia.

51. artikulua.- Zerbitzu aktiboan edo bigarren jardueran berriz ere laneratzea.

1. Plaza erreserbarik eta xede lanposturik ez dutenek zerbitzu aktiboan edo bigarren jardueran berriz ere laneratzeko, lanpostuak betetzeko deialdietan parte hartu beharko dute, lehiaketa eta esleipen libreko sistemen bitartez. Era berean, berriz ere laneratzeko behin-behinean lanpostu batean atxiki beharko dira, hutsik dagoen batean hain zuzen ere.
2. Bigarren jarduerako egoeratik zerbitzu aktiboko egoeran berriz ere laneratzea kasu batean baino ezin izango da egin. Hala, azken egoera hori ezgaitasun fisiko edo psikikoak direla-eta aintzatetsita egon beharko da, eta modu frogagarrian egiaztatatu beharko da funtzionarioa guztiz osatu dela, eta horretarako, epaimahai ebaluatzaileak aldeko txostena egin beharko du, araudi honetan zehaztutako prozedurarekin bat eginez.

IV. TITULUA ESTATUTU PERTSONALA

I. KAPITULUA. ESKUBIDEAK

52. artikulua.- Eskubideak.

Udaltzain funtzionarioek tokiko administrazioaren funtzionarioen eskubideak izango dituzte, baita estatutu araubidekoak, Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoan jasotakoak, Euskal Herriko Poliziaren Legean jasotakoak, araudi honetan ezarritakoak eta Udaltzainak bere langileekin sinatutako akordioetan jasotakoak ere, eta bereziki hauetarako eskubideak izango dituzte:

- a) Ordainsari bidezkoa eta egokia jasotzeko eskubidea, prestakuntza maila, bateraezintasunen araubidea, dedikazioa eta helburuen arriskua barne hartzen dituena, baita laneko ordutegiaren berezitasuna eta egitura berezia ere. Hori guztia legezko xedapenen eta une bakoitzeko udaleko akordioen bitartez arautuko da, aurretiaz negoziatio sindikalak egin ondoren.
- b) Prestakuntza eta hobekuntza egokia jasotzeko eskubidea, herritarrei zerbitzu ona ematea bermatzen duena, polizia funtzioaren egikaritze printzipioekin bat eginez.
- c) Sustapen profesional egokia izateko eskubidea, objektibotasun, aukera berdintasun, meritu, gaitasun eta publizitate printzipioekin bat eginez.
- d) Lanaldia polizia funtzioaren berezitasunei egokituta izateko eskubidea, akordioetan edo udal hitzarmenetan eta indarrean dagoen araubidean ezarritakoa betez.
- e) Letratuen laguntza eta defentsa jasotzeko eskubidea, erantzukizunak eskatzen direnean agindutako funtzioak egikaritzeko ekimenen ondorioz. Laguntza juridiko hori araubidezko bitartekoen bidez eskatuko da, beharrezko aurrerapenarekin.
- f) Zerbitzua segurtasun- eta higiene-baldintzetan emateko eskubidea.
- g) Mendeko langileenganako agintea duenak tratatu duina eta errespetuzkoa emateko eskubidea eta alderantziz, baita kideenganakoa ere.
- h) Arriskuak prebenitzeko eta osasuna zaintzeko eskubidea, urteko aintzatespen medikoarekin, modu boluntarioan egingo dena.
- i) Lan-jarduera euskaraz egiteko, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko araudiarekin bat etorriz.

53. artikulua.- Zorionak, aintzatespenak eta aipamenak.

1. Udaltzainak honakoen bitartez aintzatespenak izango dira:
 - a) Polizia lanaren errekonozimenduaren domina.
 - b) Polizia zerbitzuaren diploma.
 - c) Zorionak ematea.
 - d) Tokiko Polizia Kidegoan ohorezko moduan atxikitzea.
2. Aipamen horiek emateko jarduketak egingo dira Euskal Herriko Poliziaren Legean eta Euskal Herriko Tokiko Polizia Kidegoen kondekorazio eta aipamenera araubidea arautzen duen bere garapen araubidean edo aplikatu beharreko bestelako araubideetan xedatutakoaren arabera.

54. artikulua.- Sindikatu ekintzaren araubide esparrua.

Udaltzaingoko sindikatu-egintza legean eta xedapenen arabera dago araututa, eta baita honakoetan xedatutakoaren arabera ere:

- a) Sindikatu askatasunari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoa.
- b) 21/2006 Legea, ekainaren 20koa, honako hau aldatzen duena: ekainaren 12ko 9/1987 Legea, Herri Administrazioetako Langileen Ordezkaritza Organoak, lan-baldintzak eta parte hartzeko irizpideak zehaztekoa.
- c) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- d) Getxoko Udaleko Funtzionario Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Erabakia - Udalhitz.
- e) Lan-baldintzei buruzko akordioak, hitzarmenak eta erabakiak, Udaltzataren eta sindikatuen artean ezartzen direnak.
- f) Une bakoitzean indarrean dagoen araudia.

55. artikulua. Sindikatuen eskubideak.

Sindikatuaren eskubideak eraginkor egiteko, honako bitartekoak jarriko dira eskuragarri:

- a) Polizia etxean sindikatuentzat soilik izango den iragarki-ohola egongo da, eta oholaren erabilpena organoetako sindikatu atalen erabakien bidez arautuko da. Leku onean kokatuta egongo da informazio-eskubidea egikaritu ahal izateko.
- b) Sindikatuaren ordezkariek nortzuk diren une oro jakin ahal izateko, Giza Baliabideen eta Langileen organo eskumendunak Kidegoko Buruzagitzara horien izenen zerrenda bidaliko du.
- c) Atalek eta sindikatu ordezkariek beraien jardunaren berri eta Kidegoko langileentzako interesgarriak izan daitezkeen kontuen berri eman ahal izango dute, une bakoitzean indarrean dagoen legeriarekin bat eginez.

56. artikulua.- Letratuen laguntza eta defentsa.

1. Udaltzaingoen esleitutako funtzioak egikaritzeko ekimenak direla-eta, erantzukizuna eskatzen denean, Udalak honakoak egin beharko ditu:
 - a) Defentsa bere gain hartzea Auzitegi eta Epaitegietan, horretarako izendatutako letratuen bidez, eta hala, Udalaren kargurakoak izango dira sortutako zerbitzu sariak.
 - b) Adierazitako fidantzak ematea.
 - c) Kalte-galeren eta erantzukizun zibilaren kostuak bere gain hartzea, indarrean dagoen legerian ezarritako terminoetan.
2. Ebazpen judizial finkoak erantzukizuna eskatutako gertakariak polizia jardunaren arauak urratuz gauzatu zirela egiaztatzen duenean, Udalak itzulera ekintza egikaritu ahal izango du.

II. KAPITULUA. BETEBEHARRAK

57. artikulua.- Betebeharrak.

Udaltzaingoko funtzionarioek Tokiko Administrazioako funtzionarioen betebeharrak izango dituzte, baita araubide estatutuan jasotakoak eta Euskal Herriko Poliziaren Legean jasotakoak ere, eta bereziki hauek:

- a) Funtzioak egikaritzean neutraltasunez eta inpartzialtasunez jokatzeko; eta ondorioz, inor ez diskriminatzea. arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo bestelako baldintza edo inguruabar pertsonalak edo sozialak direla-eta.

- b) Beraien lanaren ezaugarri diren osotasunez eta duintasunez jokatzea.
- c) Gehiegikeriak saihestea eta horiek ez egitea, indarkeria fisikoa edo morala barne egon edo ez.
- d) Nagusi hierarkikoek emandako aginduak eta zerbitzu barneko bestelako aginduak betetzea eta egikaritzea, eta agindu bat ordenamendu juridikoan jasota dagoen edo ez argi ez badago, edota Getxoko Udaltzaingoaren Araudiaren printzipioen kontra doan edo ez, agindua eman duen nagusi hierarkikoari horren berri ematea.
- e) Une oro herritarrei errespetuzko eta gizalegezko arreta ematea.
- f) Funtzioak dedikazio osoarekin gauzatzea, lanean egon edo ez egon, edozein une eta lekutan esku hartu beharko dutelarik legezketasuna defendatzeko eta herritarren segurtasunaren alde egiteko, baita delituak egitea saihesteko ere.
- g) Lanean daudenean etengabe zaintzan egotea gorabehera guztiak jorratuz, bereziki zerbitzu publikoei eragiten dietenak, eta Udalaren ondasunak kontserbatzea, beraien kabuz arazoak konpontzeko eta kalte gehiago ez sortzeko, edo hala badagokio, dagokionari horien berri ematea.
- h) Lanean daudela gertatutako gorabeheren berri nagusiei ematea, eta menpeko langileei zerbitzuaren kontuei buruzko informazioa ematea, hori jakitea beharrezkoa baldin bada zerbitzua egikaritzeko.
- i) Herritarrak euskaraz artatzea eta hauek beste hizkuntza bat aukeratzen badute euren harremanetarako, herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraitu. Lehen hitza euskaraz egin eta gero harremana euskaraz segitzeko arazorik ez balego udaltzainek euskarazko harremana erraztu beharko dute.

58. artikulua. Bateriaezintasuna.

Udaltzaingoko funtzionarioek Funtzio Publikoaren bateraezintasunen araubide orokorra bete behar dute; beraz, ezin izango dute inolako jarduera publiko edo pribaturik egikaritu, bateraezintasunei buruz indarrean dagoen legerian salbuetsitakoak izan ezik.

59. artikulua.- Grebak egiteko debekua.

Udaltzainek, indarrean dagoen araubidearekin bat eginez, ezingo dute grebetan edo antzekoetan parte hartu, ezta zerbitzuen funtzionamendu ohikoa aldatzeko deitutako jarduketetan ere.

V. TITULUA. UNIFORMETASUNA, EKIPAMENDUA, IBILGAILUAK ETA BITARTEKO TEKNIKOAK

I. KAPITULUA. UNIFORMETASUNA

60. artikulua.- Jantziak.

Jantzi osoa uniformea osatzen duten elementuek osatzen dute, baita identifikaziorako ikurrek eta polizia jarduera garatzeko bereizgarriek ere.

61. artikulua. Araubidezko bateratasuna .

1. Udaltzain guztiek, lanean daudenean, araubidezko uniformeak jantzi beharko dute, Euskal Herriko Legean eta Araudi honetan aurreikusitako salbuespen kasuetan ez ezik; horrelakoetan, egiaztagiri profesionalarekin identifikatu beharko dira.
2. Udaltzaingoen uniformeak Alkatetzaren dekretu bidez ezarriko da eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako Euskadiko Tokiko Polizien uniformetasun eta kanpoko ikur bereizgarrien gidaliburuan ezarritako irizpideak jarraituko dira, edo hala badagokio, aurrekoak ordezkatzen dituzten arauak errespetatuko dira.

62. artikulua.- Uniformea erabiltzea.

1. Araubidezko uniformeak osorik jantzi beharko da eta bakarrik kategoria bakoitzari dagozkion ezaugarriekin. Bereizgarriak, agente bakoitzaren identifikatzaile pertsonala barne, leku ikusgarrian eraman beharko dira, eta armak eta gainerako araubidezko ekipamendua une oro modu ezin hobean mantendu beharko dira.
2. Derrigorrezkoa da udaltzainek, lanean ari diren bitartean, txapela jantzea, leku itxietan edo estalitakoetan ez ezik.
3. Ikerketa Taldeko poliziek ez dute uniformeak jantzi beharko delituak prebenitzeko lanak eta polizia judizialaren lanak egiteko, aurretiaz Alkatetzak horretarako baimena eman ondoren.
4. Iraupen laburreko zerbitzuetan arauzko uniformeak erabiltzetik salbuetsi ahal izango da segurtasuneko prebentzio-lanetako zaintzetarako, zerbitzu bereziak dituzten agintari jakin batzuen kasuan, bai eta Kidegoko Burutzak zerbitzuaren beharra duenean ere.
5. Ezin izango da uniformerik gabe lan egin aurretiazko baimenik gabe.

II. KAPITULUA. EKIPAMENDUA ETA ARMAK.

63. artikulua.- Defentsarako bitartekoak.

1. Udaltzaingoko funtzionarioek, erakunde armatu bateko kideak direnez, funtzioak egikaritzean su-armak eta gainerako gailu teknikoak eta defentsakoak eramango dituzte, horiek Udalak esleituko dituelarik.
2. Alkatetzak, arrazoituta eta Kidegoaren Buruzagitzaren aurretiazko txostenarekin, erabakiko du armarik gabe emateko zerbitzuak zeintzuk diren. Hala ere, bide publikoko segurtasun eta zaintza zerbitzuak, beti armekin egingo dira.

64. artikulua.- Polizien oinarrizko ekipamendua.

1. Oinarrizko ekipamenduan banaka erabiltzeko bitarteko lagungarriak egongo dira, beharrezkoak eta araubidezkoak direnak polizien funtzioak egikaritzeko, hauek hain zuzen ere:
 - a) Araubidezko su-arma, munizioarekin eta segurtasunez ateratzeko zorroarekin.

- b) Araubidezko defentsa, gerrikoari lotutako soin uhalarekin.
 - c) Araubidezko girgiluak, zorroarekin.
 - d) Mozketen aurka babesteko araubidezko eskularruak.
 - e) Araubidezko irrati-telefono mugikorra, zorroarekin.
 - f) Txilibitua.
2. Hauxe izango da udaltzainek izan dezaketen ekipamendu osagarria:
 - a) Balen eta mozketen aurkako araubidezko txalekoa.
 - b) Norbere defentsarako araubidezko spray-a, dagokion zorroarekin.
 - c) Araubidezko linterna, dagokion zorroarekin.
 - d) Araubidezko labana, dagokion zorroarekin.
 - e) Araubidezko pistola kargatzailea, dagokion zorroarekin.
 3. Zenbait kasutan, eta ekipamendu osagarri gisa, Udaltzaingoak beste arma batzuk izan ahalko ditu Alkatetzak egokitzat joz gero eta baimena emanaz gero. Horretarako, aurretiaz Kidegoaren Buruzagitzak eskaria egin beharko du, armen alorrean unean-unean indarrean dagoen araubidearen arabera.

65. artikulua.- Bestelako materialak erabiltzea.

Debekatuta dago araubidea betetzen ez duten armak edo defentsarako tresnak eramatea eta/edo erabiltzea, lanetik kanpo araubidezko materiala eramatea eta/edo erabiltzea eta materiala gehiegieriaz edo justifikaziorik gabe erabiltzea.

66. artikulua.- Gailu mugikorren erabilera.

1. Modu iraunkorrean edo aldi baterako edo eguneroko zerbitzua dela-eta, gailu mugikorra duten langileek operatibo eduki beharko dute, eta gailu hori erabiliko dute polizia-lanerako behar dituzten komunikazioak errazteko.
2. Debekatuta dago gailu mugikor partikularrak erabiltzea (smartphonea, tableta, ordenagailu eramangarria edo antzekoa), premia larriko edo larrialdiko egoeretan edo araubidezko atsedendian izan ezik.

67. artikulua.- Indarra eta su-armak erabiltzeko oinarriko printzipio mugatzaileak.

1. Udaltzainek, lanean daudenean, beharrezko irimotasunez jardungo dute indarra erabili gabe eta eskuragarri dituzten baliabideak erabiltzean egokitasun, behar eta proportzionaltasun printzipioak beteko dituzte.
2. Ez dute armarik erabiliko beraien bizitza edo osotasun fisikoa edo hirugarrenena arriskuan jartzen duen arrazoizko arriskurik ez baldin badago, edo herritarren segurtasuna arriskuan ez baldin badago, eta aurreko atalean jasotako printzipioekin bat eginez jardungo dute.
3. Su-armak erabiltzea salbuespenezko neurria izango da; beraz, ez dira erabiliko armen bidezko erresistentziarik ez baldin badago edo agenteen edo hirugarren pertsonen bizitza arriskuan ez baldin badago, eta beraz, erasotzailea beste modu batean gelditu ezin denean erabiliko dira.

68. artikulua.- Behin betiko arma kentzea.

1. Araubidezko su-arma, jabetza gida eta munizioa behin betiko kenduko zaizkie udaltzainei eta Kidegoaren Buruzagitzari emango zaizkie honako kasuak gertatzen direnean:
 - a) Erretiroak, eszedentziak, zerbitzu bereziak edo heriotzak gertatzen direnean.
 - b) Gaixotasunak direla-eta edo gaitasun psikofisikoak murrizten direnean, eta behin betiko armak izateko gaitasuna galtutakoan, aurretiazko mediku preskripzioaren bitartez.
 - c) Zerbitzutik behin betiko banatzeko zigor finkoa ezarriz gero.
 - d) Aplikatu beharreko legeriaren arabera, armak kentzea sortzen duten arau-hausteak egitea.
2. Arma behin betiko kenduko dela jakinaraziko zaio Guardia Zibilaren Arma Kontu-Hartzailtzari Kidegoaren Buruzagitzaren idazki bitartez.

69. artikulua.- Arma aldi baterako kentzea.

1. Araubidezko su-arma, jabetza-gida eta dagokion munizioa aldi baterako kenduko dira honako inguruabar hauetan:
 - a) Ustekabean gertatutako arazo fisiko edo psikikoak izatea, medikuaren txostenaren bitartez egiaztatutakoak.
 - b) Kontu diziplinarioan kautelazko neurri gisa, arma erabiltzearekin lotuta, ikerketa eta/edo espedienteaz aztertzen den bitartean.
 - c) Agintaritzaren Judizialak ebazpena eman duelako.
 - d) Jabetza-gida galdu, lapurtu edo suntsitu delako, beste gida bat eman arte.
 - e) Ezarritako epean arma ikuskatzeko betebeharra ez betetzea, egoera hori legezatu arte, horretarako justifikatutako arrazoiren bat egon ezean.
 - f) Enplegua eteteko zigor finkoak, penalak eta administratiboak irauten duen bitartean.
2. Kidegoko Buruzagitzak arma kentzeko izapidetzeak, betekizunak eta betebeharrak gauzatuko ditu, eta arma kentzea dagokion administrazio-espediente baten bidez egingo da, indarrean dagoen legeriarekin bat eginez.
3. Aldi baterako arma kenduko dela jakinaraziko zaio Guardia Zibilaren Arma Kontu-Hartzailtzari Kidegoaren Buruzagitzak sinatutako idazki baten bidez.

70. artikulua.- Arma eramateko betebeharra eta salbuespenak.

1. Udaltzainek araubidezko su-armak eta munizioa ezarritako zorro eta kartutxo uhaletan eraman beharko dituzte lanean dauden bitartean.
2. Aurrekoa gorabehera, ez dute betebeharrak bete beharko Araudi honen 63. artikuluko 2. puntuko inguruabarretan.

71. artikulua.- Matxurak eta armak konpontzea.

1. Araubidezko arman arazoak edo akatsak egonez gero, nagusi zuzenari horien berri emango zaio, eta funtzionarioak ez du arma manipulatu eta ez ditu akatsak modu partikularrean konponduko.
2. Debekatuta dago armen ezaugarriak aldatzea eta hornitutako munizioa ezin izango da egokitu, manipulatu edo berriz ere kargatu.

72. artikulua.- Armen jabetza-gida.

Arma izateko gida armarekin batera egongo da beti, bai arma izatean, konpontzean, gordetzean eta garraiatzean.

73. artikulua.- Arma edo jabetza-gida galtzea, lapurtua izatea edo suntsitzea.

1. Arma, munizioa edo jabetza-gida galtzen bada, lapurtua izaten bada edo suntsitzen bada, titularrak berehala horren berri emango dio nagusi hierarkikoari, eta salaketa judiziala egingo du.
2. Horren jakitun den nagusi hierarkikoak berehala Kidegoaren Buruzagitzari informazioa emango dio, Guardia Zibilaren Arma Kontu-Hartzailetzari helarazteko eta hala badagokio, diziplinazko erantzukizuna zehazteko neurriak ezartzeko.

74. artikulua.- Su-arma gordetzea.

1. Araubidezko su-armak eta kartutxoak Udaleko bulegoetan gordeko dira zerbitzu orduetatik kanpo. Polizia etxearen barnean egongo da kokatuta armak gordetzeko gela, bideokameren bidez zaindua egongo dena, eta kutxa indibidualak egongo dira giltzekin, agente bakoitzak araubidezko arma bertan uzteko.
2. Armak gordetzeko gelaren barnean "eremu hotzeko kutxa" egongo da, eta bertan armak manipulatu ahal izango dira beharrezkoa denean, erabilera jarraibideak egongo direlarik istripuak saihesteko.
3. Laneko txanda bukatzean, polizia araubidezko arma kutxa indibidualetan utzi beharko dute, eta beraz, debekatuta dago zerbitzuz kanpo arma eramatea.

III. KAPITULUA. IBILGAILUAK ETA BITARTEKO TEKNIKOAK

75. artikulua.- Ibilgailuak

1. Udaltzaingoko langileek ibilgailuak izango dituzte polizia lanak egiteko (motozikletak, autoak, furgonetak, bizikleta elektrikoak, eta abar).

2. Ibilgailuek errotuluak izango dituzte Eusko Jaurlaritzak onetsitako Euskadiko tokiko polizien uniformetasun eta kanpoko ikur bereizgarrien araubidean edo unean-unean indarrean dagoen araubidean ezarritakoarekin bat etorritz.
3. Udaltzainek arretaz gidatuko dituzte ibilgailuak eta maila gorenean zainduko dituzte segurtasunari eta estetikari dagokienez baldintza onenetan egon daitezen, eta ibilgailuekiko gorabeherak gertatzean horien berri emango dute, beharrezko konponketak egin daitezen.

76. artikulua. Bitarteko teknikoak

1. Langileentzako eskuragarri egongo diren bitarteko teknikoak dira Udaltzaingoak bere betebeharrak betetzeko dituen elementu eta sistema guztiak, erabilera indibidualeko ekipamenduarekin batera.
2. Bitarteko horiek honela sailkatzen dira:
 - a) Ikuskaritza eta kontrol bitartekoak.
 - b) Seinaleztapen bitartekoak.
 - c) Transmisio eta komunikazio bitartekoak.
 - d) Baliabide informatikoak.

77. artikulua.- Ikuskaritza eta kontrol bitartekoak

Ikuskaritza eta kontrol lanak egiteko, Udaltzaingoko langileek honakoak erabiliko dituzte:

- a) Sonometroak, zarata maila neurtzeko.
- b) Etilometroak, odoleko alkohol kantitatea neurtzeko, eta listu-probak droga kontsumoak neurtzeko.
- c) Radarrak, ibilgailuen abiadura neurtzeko.
- d) Matrikulak identifikatzeko ekipamendua, lapurtutako ibilgailuak detektatzeko eta/edo trafikoko arau-hausteak salatzen irudi hartzeekin.
- e) Bideokamerak, Udaleko eraikin eta elementuetako segurtasuna kontrolatzeko eta trafikoa eta bide-segurtasuna kontrolatzeko.

VI. TITULUA. KIDEGOAN SARTZEA, PRESTAKUNTZA, PRAKTIKA ALDIA, ETENGABEKO

PRESTAKUNTZA, SUSTAPENA ETA ERRETIROA

I KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

78. Artikulua.- Kidegoan sartzeko betekizunak eta aukeraketa prozedurak

Udaltzaingoko Kidegoko kategorietan sartzeko sistemak eta hautaketa prozedurak Euskal Herriko Poliziaren Legean, garapen-araubidean eta aplikatu beharreko gainerako araubideetan ezarritakoak izango dira.

II. KAPITULUA. KIDEGOAN SARTZEA, PRESTAKUNTZA ETA PRAKTIKA ALDIA.

79. artikulua.- Udaltzaingoko Kidegoan sartzea

1. Udaltzaingoko Kidegoan sartzeko hautapen prozedura gauzatuko da, eta Euskal Herriko Poliziaren Legearen 47. bis eta 55. bis artikuluetako betekizunak bete beharko dira. Horrez gain, lege horretan aurreikusitako prozedurekin eta aplikatu beharreko gainerako araubidearekin bat eginez jardungo da.
2. Bermatu egingo da Euskal Herriko Poliziaren Legean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean edo sarbide, hornidura eta sustapen hautaketa prozesuei buruz indarrean dagoen araubidean ezarritakoak aplikatzen direla, Kidegoan emakumeen eta gizonen kopurua orekatua izatea sustatuz.

80. artikulua.- Prestakuntza eta praktika aldia

Prestakuntza aldia eta praktika aldia Euskal Polizia eta Larrialdi Akademiak onetsitako xedapenak beteko dira.

III. KAPITULUA. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA. EUSKALDUNTZEA.

81. artikulua.- Etengabeko prestakuntza

1. Udaltzaingoko langileen etengabeko prestakuntza Euskal Herriko Poliziaren Legean xedatutakoarekin bat eginez gauzatuko da.
2. Udaltzaingoko langileek ikastaroak jasoko dituzte, aurretiaz eskariak egin eta onartuak izaten badira, eta horretarako baimena eman beharko du Kidegoaren Buruzagitzak; ikastaro horiek Euskal Poliziaren eta Larrialdien Akademiak urtero eskaintzen ditu.
3. Ikastaroak modu boluntarioan egin ahal izango dituzte, edo derrigorrean egin beharrekoak izango dira Kidegoaren Buruzagitzaren ebazpenen edo aginduen bitartez aginduz gero.
4. Era berean, Udaltzaingoko langileek Udalak edo bestelako Erakunde edo Organismo Ofizialek antolatutako prestakuntza ikastaroak jaso ahal izango dituzte, aurretiaz horretarako baimena izan beharko dutelarik.

82. artikulua.- Euskalduntzea

Udalak poliziei beharrezko prestakuntza emango die zerbitzua gizarte elebidun batean emateko, eta horretarako neurriak ezarriko ditu eta kidegoan euskararen erabilera sustatuko du. Udaltzaingoko langileek euskara ikastaroetan parte hartu ahal izango dute Udaleko Euskara Planen barnean, hizkuntz normalizazioaren alorrean indarrean dagoen araubidearekin bat eginez.

IV. KAPITULUA. BARNE SUSTAPENA ETA ERRETIROA

83. artikulua.- Barne sustapena

Udaltzaingoko langileen barne sustapena Euskal Herriko Poliziaren Legearen edo unean-unean indarrean dagoen araubidearen arabera egingo da.

84.artikulua.- Erretiroa

1. Udaltzaingoko langile funtzionarioen erretiroak Euskal Herriko Poliziaren langileen estatutu araudiarekin bat eginez gauzatuko dira.
2. Udaltzaingoko langileek Toki Administrazioaren funtzionarioei dagokien babes sozialeko araudia bete behar dute, horri buruz Gizarte Segurantzako araubidean jasotako zehaztapenekin.
3. Zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batzuetan dauden Udaltzaingoko langileek eta erretiroa dela-eta jada funtzionarioak ez direnek, zerbitzu aktiboan egon ziren denboran gertatutako egitate edo ikerketei buruzko testigu edo peritu gisa epaiketetara joan behar dutenean, eskubidea izango dute jasotzeko aktiboan dauden funtzionarioentzat aurreikusitako zerbitzu kalte-ordainak. Epaiketetara joatea errazteko, administrazio honi egungo helbidea jakinarazi beharko diote, une bakoitzean indarrean dagoen legeriarekin bat eginez.

VII. TITULUA DIZIPLINAKO ARAUBIDEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

85. artikulua.- Aplikatu beharreko arauak eta printzipioak

1. Udaltzaingoko funtzionarioen diziplinako araubidea Euskal Herriko Poliziaren Legean, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinako Araubidean, araubide honetan eta aplikatu beharreko gainerako araubideetan oinarrituta egongo da.
2. Edonola ere, diziplinako araubideak errugabetasun presuntzio, kontzentrazio, salatzailearen informazio eta interesatuaren entzunaldi printzipioak beteko ditu.
3. Hautaketa ikastaroek irauten duten bitartean, hau da, akademian prestakuntza jasotzen ari diren bitartean, agenteek Euskal Poliziaren eta Larrialdien Akademiaren diziplinako araubidea beteko dute, eta praktika aldian dauden funtzionarioak izango direnez, araudi honetan ezarritako diziplinako araubidea ere beteko dute.
4. Udaltzaingoko langileen diziplinako araubidea erantzukizun zibila, penala eta/edo ondarekoa albo batera utzi gabe aplikatuko da

II. KAPITULUA. ZEHAPEN ESKUMENA ETA ZEHAPEN PROZEDURA

86. artikulua.- Diziplinazko zehapen-eskumena

Diziplinazko zehapen-eskumenak honako hauek beteko ditu: Toki Araubideko Oinarrien Legea, Euskal Herriko Poliziaren Legea, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinako Araubidea eta unean-unean indarrean dagoen Araubidea.

87. artikulua.- Diziplinazko prozedura

1. Diziplinazko prozedurak Euskal Herriko Poliziaren Legea, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinazko araubidea eta unean-unean indarrean dagoen araubidea beteko ditu.
2. Ezin da behin-behineko neurririk hartu interesdunei kalte konponezina dakarkienik edo legeek babestutako eskubideak zapaltzen dituenik.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan xedatuta ez dagoen guztirako, Udaltzaingoari aplikatu beharreko indarreko legerian xedatutakoak aplikatuko dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Getxoko Udaleko Alkatetzak eskumenak izango ditu Araudi hau garatzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratu da Getxoko Udaltzaingoaren Araudia, 2004ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkuran onetsitakoa eta partzialki aldatu zena 2018ko apirilaren 25eko Osoko Bileran. Horrez gain, maila baxuagokoak diren gainerako arauak, akordioak, ebazpenak, xedapenak eta/edo Udalaren jarraibideak indargabetu egingo dira Araudi honetan xedatutakoaren aurkakoak izanez gero.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” osorik argitaratu eta hurrengo hamabost egun baliodunera.